

**COVID19AREN POSITIBOEN BERRI EMATEKO PROZEDURA****(EGUNERATUTA: 2022-01-17)**


Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen jarraibideen arabera (2022ko urtarrilaren 11n jaso ziren), COVID19aren komunitate-transmisioa oso larria dela ikusirik, gaixotasun honen kasu positiboak eta beren hurbileko kontaktuak lan-arloan kudeatzeko orain arte aplikatzen izan den prozedura aldatu behar dugu.

Hemendik aurrera **Osakidetzak** herritar guztientzat ematen dituen jarraibideak hartu behar ditugu kontuan; **jarraibideak eguneratuta egongo dira esteka honetan:**



<https://www.euskadi.eus/nola-jokatzen-dut/web01-a2korona/eu/>

2022ko urtarrilaren 17an honako hauek dira Eusko Jaurlaritzako Justiziako langileek aintzat hartu beharreko jarraibideak:

COVID sintomak, kontaktu estuak, farmazia positiboko antígeno-testa eta laneko ABE baja behar duten pertsonak erregistratzeko inprimaki bakarra .

Kolektibo kalteberetako pertsonak zuzenean jo ahal izango dute antígenoen testerako hitzordua eskatzera web zita bidez , formularioa bete beharrik gabe.

Sintomak dauzkat. Zer egin behar dut?

- **COVID-19aren sintoma ohikoenak honako hauek dira:** sukarra, eztula, eztarriko mina, aire faltaren sententzia edo usaimena galtzea. Pertsona batzuek minak izaten dituzte, sudurreko kongestioa edo beherakoa.
- Sintoma hauetako bat baduzu:
 - (1) **BAKARTU:** gelditu etxean.
 - (2) Eman alta zeure buruari [formulario \(SINTOMEN FORMULARIOA\)](#)  honen bidez proba diagnostikoa egiteko hitzordua jasotzeko. SMS bidez helduko zaizu. Bestela, [zeure OSASUN-ZENTRORA](#)  deitu dezakezu.
 - (3) Egin sintomak hasi aurretik egon zaren pertsona guztien **ZERRENDA**.



- Kolektibo kalteberetako pertsoneri erraztasunak emango zaizkie proba diagnostiko bat egiteko, [Osakidetza aurretiko hitzorduaren](#) atalaren bidez.
- **Osakidetza** harremanetan jarriko da zurekin.
- Txertoa hartu badut ere egin behar dut? BAI.

Positibo eman dut. Zer egin behar dut?

- Ahalik azkarren jakinarazi behar diezu zeure hurbileneko arduradunari eta Prebentzio Zerbitzuari (945018747 – prebentzio@justizia.eus).
- **SMS mezua jasoko duzu**; bertan probaren emaitza agertuko da eta zer egin behar duzun azalduko zaizu.
 - **1. BAKARTU:** gutxienez 7 egun egon behar duzu bakartuta sintomak hasi direnetik edo proba egin dizuenetik [Informazio gehiago](#)
 - **2. SINTOMEN JARRAIPENA:** gehienetan gaixotasunak sintoma arinak izaten ditu (sukarra, eztula, eztarriko edo buruko mina, nekea edo usaimena edo gustua galtzea). [Informazio gehiago \(PDF, 152 KB\)](#)
 - **Sintomek okerrera egiten badute edo arnasa hartzeko zailtasunak badituzu**, orduan bai, **jarri harremanetan zeure osasun-zentroarekin.**
 - **3. KONTAKTUAK:** identifikatu norekin egon zaren kontaktuan, transmisioa eteteko. Informazio gehiago: [“Kontaktu estua”](#).
- (*) Probaren emaitza ez bada “zehatza” edo “argia”, beste bat egin beharko duzu. Bien bitartean bakartuta egon beharko duzu. SMS bidez beste hitzordu bat jasoko duzu emaitza baieztatzeko.

Positibo eman dut farmaziako test autodiagnostikoan. Zer egin behar dut?

Farmaziako proba batean positibo emanez gero, **etxean bakartuta egon beharko duzu**, handia izango baita COVID edukitzeko arriskua.

- Ahalik azkarren jakinarazi behar diezu zeure hurbileneko arduradunari eta Prebentzio Zerbitzuari (945018747 – prebentzio@justizia.eus).
- Informazio gehiago: [“Positibo eman dut. Zer egin behar dut?”](#)



Osakidetzak beste proba diagnostikoa bat egingo die farmaziako test batean positibo eman dutenei, **kolektibo kaltebera batekoak izanez gero**, txertoa hartu ez duen pertsona bat, edo laneko baja izapidetu behar duten pertsonak badira, honako [inprimaki hau](#) betez.

- [Kolektibo kalteberetako](#) pertsoneri ere erraztasunak emango zaizkie proba diagnostiko bat egiteko, Osakidetzaren [aurretiko hitzorduaren](#) atalaren bidez.

Kontaktu estua naiz. Zer egin behar dut?

Prebentzio Zerbitzuak kontaktu estuak direla adieraziko die positibo ematen duten pertsonak halakotzat jotzen dituztenei.

Norbaitek uste badu positibo eman duen pertsona baten kontaktu positiboa dela, atal honetan azaltzen dena egin beharko du.

Definizioa:

- Kontaktu estua da proba egin edo sintomak hasi aurreko 48 orduetan kasu positibo baten leku berean, **2 metrora baino hurbilago eta 24 orduetan guztira 15 minutu baino luzeago**, maskara etengabe eta behar bezala erabili gabe egon den pertsona.

Proba diagnostikorako hitzordua Osakidetzan:

- [Kolektibo kaltebera](#) bateko kide bazara edo txertatuta ez bazaude, Osakidetzari zure egoeraren berri eman behar diozu, hurrengo [formularioaren bidez](#) proba diagnostiko bat egin diezazun.

*[Kolektibo kalteberetako](#) pertsoneri erraztasunak emango zaizkie proba diagnostiko bat egiteko, [Osakidetzaren aurretiko hitzorduaren](#) atalaren bidez.

Kontaktu estuen berrogeialdia:

- **Berrogeialdia txertoa jarrita EZ dutenek** baino ez dute egin beharko. Gainerakoek ez dute berrogeialdia egin beharko; hala ere, prebentzio-neurriak zorrotz bete beharko dituzte eta sintomarik agertzen denez zaindu beharko dute.